

① ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS. GAIA.

- 1 - Piarresok nola maite zuten etxea eta bere inguruak?
- 2 - Zer aserikite egiten zuten Aitaxok etxe kolonaz?
- 3 - Zer irudi emaiten dauke azken sermoaldian Aitaxok?

① ETXEA 3

Oro maite zituen etxeño hartan, oro etxe inguruan: landa, sorro eta mahasti gizenak, xoriz bethe berho-sasiak, xilo batean gordatuz erasian kur kur ari zen ilhurria, zeru urdina etxearen inguruan. Auk, haizeak harrotzen ere zioten Oihanaldeko lur, hosto eta loreen usain berezia, auzoko lurrek ez zuten usain berezi hura: hola bederen iduritzen zitzaion Piarresi. Lur hura bihotzez maitatzea eginbide handia zitzaion. Ez othe zuten Jainkoak ahurtara⁶ bat-lurrekin moldatu *Lehen gizona? Ahurtara* bat lur ez zirena oro bilhakatu behar egun batez?...

Oihanaldean lehenago hil zirenen izerdiek ez othe zuten emokatu⁷ lur-eremu hura guzia? Erdi-saindua bederen ez zena beraz ondolik ethorriak zirenentzat? Haren aintzinean, egun batez, kondata baitzuten, Aitaxo lehenago ez zela sekula auzoko lurrera iraganen, eskalapoinetako⁸ lurra bere lurretara eroraraziz baizik, hirri egin zuten orduan Piarresok. Bainan orai, Aitaxok bezala ez arras berak eginikan ere, iduri zitzaion halako gauza maite batez hiririk bederen ez zela behar gehiago. Eta, zonbeit aldiz, ustegabetarik bezala, ez othe zitzaion gertatu, bere buruarekin egon baitzen, *zein othe zitezken aitaxok hala begiratu lurmokorrak?*

Bai, apheza aldarekotzat bezala, lurrarentzat eginak ziren laborariak. Ez ziren, *bizirik lur-bilhakatu* behar; bainan, arima hegaldaka bere gain utzirik, zango besoak lur hari behar zituzten josiak, lur-ekin borroka behar ziren bizi; eta *biziari* ukho eginez urruntzen ziren beraz, *hiritik hiritar* zoazin eskualdunak. Besorik aski lurrak ez izanez, ogirik aski izanen othe zen geroan jendearentzat, *hiritik joan eskualdunentzat eta bertzeentzat?*...

③ ADITZ IKASKUNTEA

31 Zioten 32 Zitzaioren

33 Zitezken 34 Zezaken.

31. UKAN. Conj. à dble cpl. t. Imparfait

O.S. - C.I. sing. Hari = à lui - Objet pluriel

Nik nion = je le lui avais	Nizhion = je les avais
Zuk zinion = vous le lui aviez	Zinizhion = vous les lui aviez
Harek zion = il - " - avait	Zizhion = il les lui avait
Guk ginion = nous - " - avions	Ginizhion =
Zuek zinioten = vous - " - aviez	Zinizhioten =
Heiek zioten = ils - " - avaient	Zizhioten = etc.

32. IZAN Régime Indirect.

Indicatif - Imparfait

Hura zen = il était.

Hura = <u>leui</u> zitzaitan = il m'était
zitzaizun = il vous était
zitzaioren = il lui était
zitzaizun = il nous était
zitzaitzuen = il vous était
zitzaien = il leur était.

Gue ginen = Nous étions

Gue = nous gintzaizkizun = nous vous étions
gintzaizkizion = nous lui étions
gintzaizkizuen = nous nous étions
gintzaizkizien = nous leur étions

33. IZAN. Potentiel Imparfait.

Ni izan nintzen = je pouvais être. - Gue zan gintzekin
Hi " hintzen = { Zuek - " - zintzekin
Zu " zintzekin = { Heiek - " - zintzekin
Hura " zitezken = etc.